

# HAURREN HIRIA

## *Gasteizko Alde Zaharreko proiektua*

**Alazne Bereziartua Arabaolaza**  
**Geografia eta Lurralde Antolakuntzako Gradua**  
**2018/2019 ikasturtea**  
**Leire Urkidi Azkarraga**  
**Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila**

# 1.-AURKIBIDEA

---

1.-AURKIBIDEA.....	2
2.- LABURPENA.....	3
3.- SARRERA.....	4
3.1.- Ikerketaren helburuak.....	5
4.- MARKO TEORIKOA ETA AURREKARIAK.....	5
5.- METODOLOGIA.....	11
6.- TESTUINGURUA.....	13
6.1.-Gasteiz Hiria.....	13
6.2.- Gasteizko Alde Zaharra.....	14
7.- ANALISIA.....	16
7.1.- Haurren Auzoaren helburuak.....	17
7.2.-Prozesuaren azalpena.....	19
7.2.1. Aurrekontu parte-hartzaileak.....	19
7.2.2.- Proiektua definitzeko metodologia.....	21
7.3.-Proiektuaren azkenengo proposamena.....	23
7.3.1.- Espazioen eraldaketa.....	24
7.3.2.- Trafikoaren proposamena.....	29
8.- ONDORIOAK.....	34
9.- BIBLIOGRAFIA.....	37

## 2.- LABURPENA

Gasteiz Hiriak azkenengo urteetan bizi izan duen eraldaketa eta Alde Zaharreko auzoaren morfologiak ezartzen dituen baldintzak medio, gaur egun, Gasteizko Alde Zaharrak hainbat arazo ditu auzotarren iritziz: bazterketa soziala, espazio publiko eta berde gutxi eta, ostalaritzaren gehiegizko presentzia, besteak beste. Horrela, 2017. urtean “Haurren Auzoa” egitasmoa sortzen da, auzoan dagoen espazio libreen eskasia eta trafiko trinkoaren inguruko arazoak konpondu nahian, bai eta haurrentzat egokiak diren eremuak sortu eta hauen autonomia sustatzeko ere.

Horretarako, Francesco Tonucci italiarraren “Haurren Hiriaren” inguruko ideietan oinarritu ziren. Tonucci, haurtzaroaren geografiaren eta hirigintza parte-hartzailearen sustatzaileetako bat da nahiz eta geografoa ez izan. Hirigintza mota honek haurren jartzen du arreta, gizartearen talde ahulenen ordezkari hartuta. Izan ere, Hiri Geografiaren hainbat arlotatik salatzen den moduan, hiri espazioa heldu produktiboaren inguruan antolatu da, beste kolektiboen behar eta iritziak alboratuz. Haurren beharrak errespetatzen dituen espazioak, denon beharrak errespetatzen ditu Tonucciren esanetan.

Lan honetan, ikuspuntu hori zehazten duen Gasteizko Alde Zaharreko egitasmoa aztertzen da. Zeren, hirigintza parte-hartzailearen eta inklusiboaren adibide bat aztertzea du helburu, bai eta mota honetako egitasmoen inguruko balorazioa, bizipenak eta faseak ezagutzea ere. Nola sortu zen egitasmoa, nola parte-hartu zuten auzoko eragile eta elkarte ezberdinek, nola jaso ziren haurren behar eta iritziak eta nola lortu zen Udalaren aurrekontu parte-hartzaileen artean aukeratu izatea azaltzen da. Horrez gain, azkenengo proposamena aztertzen da eta prozesuaren argi eta ilunak baloratzen dira. Horretarako, hiru elkarrizketa egin dira: hots, Gasteizko Udala, auzoko sustatzaileak eta Nondik arkitektura estudioarekin. Horretaz gain, elkarrizketatuek eskainitako dokumentazioa, webgune ezberdinak eta berriak erabili dira, proiektuaren faseen eta gaur egun mahai gainean dauden proposamenen inguruko analisisa egiteko.

Analisian zehar azaltzen den moduan, Alde Zaharreko egitasmoak arrakastak eta zailtasunak izan ditu. Arrakasten artean, auzoan lortutako parte-hartzea, Udal aurrekontuetan sartu izana edo espazio publikoaren inguruan emandako hausnarketa azpimarratu daitezke. Zailtasunen dagokienez, Udala eta auzoko taldearen artean

izandako desadostasunak aipatu behar dira. Izan ere, Udalaren azken proiektua hasierako “Haurren Auzoaren” proposamenetik urrun geratzen da. Ondorioetan azaltzen den moduan, Gasteizko egitasmoak bat egiten du Tonucciren helburuekin eta alderdi batzuk betearaztea lortzen du. Baina Alde Zaharreko muinoa benetan haurren autonomia eta ezberdinen arteko elkartzea sustatzen duen espazio bihurtzeko, aurrerapausoak oraindik emateke daude.

Hitz gakoak: *hirigintza parte-hartzailea, Tonucci, Gasteizko Alde Zaharra, Haurren Auzoa, aurrekontu parte-hartzaileak.*

### **3.- SARRERA**

Lanak, Francesco Tonucciren “Haurren Hiria” egitasmotik abiatuta Gasteizko Alde Zaharrean sortu den “Haurren Auzoa” proposamena aztertzen du. Metodologia parte-hartzailearen bitartez, auzotarren –eta batez ere umeen- nahi eta beharrak identifikatu dituzte, auzo eskalako erantzun bat emateko.

Mota honetako egitasmoek, geografiak eta batez ere hirigintzak bizi duen eraldaketa prozesua erakusten dute. Orain arte, hirigintzak zuen patroia eta egitura zurrunarekin amaitu nahi da, herritarren parte-hartzea sustatuta, guztien beharrak beteko dituzten espazio publikoak lortzeko. Kasu honetan, ideien epizentro haurrak dira, beraiek eskaintzen dituzten ikuspegietatik abiatuta, gizarte-talde ahulenak ordezkatzeko dituztelako (Tonucci, 2006). Horrelako ekimenek hiria bera eta espazioa pentsatzeko moduak eraldatzen dute gizartean eta horregatik, bere ekarpen eta mugen analisia ezinbestekoa da.

Hala, lehenik, lanaren helburuak ezagutu eta, marko teorikoaren laguntzaz, hirigintza parte-hartzailearekin lehen kontaktua egingo da. Bigarrenik, txostenean aplikatu den metodologia kualitatiboa azalduko da. Hirugarrenik, Gasteiz eta Alde Zaharreko testuinguruek, gaur egungo egoeran kokatzeko aukera eskainiko dute. Behin gaiaren inguruko hurbilketa eginda, txostena analisisian “Haurren Auzoa” proiektua aurkeztuko da, bai eta prozesuak izandako bilakaera, gaur-egun duen azkenengo

proposamena eta arrakasten eta zailtasunen balorazioa ere. Amaitzeko, Alde Zaharreko Haurren Auzoaren inguruko ondorioak azalduko dira.

### **3.1.- Ikerketaren helburuak**

Txosten honek, ikerketaren bi xede nagusi ditu, alde batetik Francesco Tonucciren "Haurren Hiria" proposamena ezagutzea eta bestetik, Gasteizko Alde Zaharreko proiektua aztertzea. Beraz, ondorengo helburuak jorratuko dira:

- Hirian kokatzen den proiektuaren testuinguru eta helburuak ezagutzea
- Proiektuak izan dituen faseak eta honi esker lortutako emaitzak aztertzea
- Tonuccik proposatutako metodologia eta kasu erreal bat alderatzea eta baloratzea
- Mota honetako proiektuen arrakastak eta zailtasunak aztertzea


## **4.- MARKO TEORIKOA ETA AURREKARIAK**

Kapitalismo eta globalizazioaren aroan, lurzoru hiritarraren arazo/beharrei erantzun azkar bat eman nahian, espazio berrien sorkuntza masiboa sustatu da, kontuan izan gabe eraikitzen ziren eremuak gizartearentzat bideratuak eta “bizitzeko espazio” izan beharko lirakeela. Izan ere, askotan administrazio publikoari ahaztu egin zaio biztanleria eta honen beharren zerbitzura egon behar duela (Arbeloa, 2012), ondorioz, hirigintza plangintzetan faktore humanista bigarren maila batean ahantzia izan da.

Kritika honi jarraiki, Lewis Mumford hiri-antolatzaile estatubatuarren hitzetan, hiriaren plangintzak historikoki helburu sozio-politikoaren arabera antolatuak izan dira, subjektu jakin baten beharrei soilik erantzunez. Hala nola, berak dioenez, hiriak gizon gazte osasuntsua -disfuntziorik pairatzen ez duena beraz- eta langilearen ikuspegitik soilik antolatzen dira, bi arrazoi nagusirengatik: alde batetik, boto eskubideaz gozatzen zuten populazioaren zatia izanik, alderdi politikoaren hauteste nahiak aurrera eramateko; eta beste aldetik, familia nukleoaren buru izanda, uste zutelako honen nahiak beteta, gainontzeko familiaren beharrak ere asetuak suertatuko zirela (Mumford, 1945 &

Tonucci, 2006). Filosofia hau, sistema patriarkalaren eta *adinkeraren* eraginak dira. Robert Neil Butler<sup>1</sup> gerontologoak izendatu zuen kontzeptua 1969. urtean, zaharren aurka gertatzen ohi ziren diskriminazio ekintzak deskribatzeko baina terminoa gazteen eta haurren aurkako bazterketa izendatzeko ere erabiltzen da, batez ere haien iritziak eta beharrak kontutan hartzen ez direnean.

Honen ondorioz, lehenik eta behin, hiriei patroiz zehatz bat esleitu zaie, gizartearen gainerako banakakoak (emakumeak, haurrak, zaharrak, zailtasun psikologiko nahiz fisikoak dituztenak, besteak beste) hiri-plangintza honetatik kanpo utzi eta hiria eraldatuz, gizartearen gutxiengo baten onurarako (Tonucci, 2006). Eta bigarrenik berriz, hiri plangintza eta kudeaketa oker bat bideratu da, erabaki edota proiektu publikoak hautesleak irabazteko estrategiatzat erabiliz (Arbeloa, 2012), sub-urbanizazioa, segregazio sozio-espaziala, populazioaren pilaketak eta gentrifikazioa bezalako arazoak sortuz espazio urbanoetan.



1. irudia: hiri parekidea noizko? Tonucci (2013) *Haurren Hiria* [liburua] 190. or.

Auzi honi heldu nahian, hainbat kritikek diotenez, hiri geografikak ezin luke neutrala izan, zeren bere eginbeharra, lurraldean kokatzen diren ezberdintasunak leuntzea litzateke, horien kausak identifikatuz eta gizarte justu eta parekideago bat lortuz (Mattson, 1978). Beste autore batzuk haratago doaz: hiriak behetik goraka eraiki

---

<sup>1</sup> Butler, R. N. 1969. "Age-ism: Another Form of Bigotry." *The Gerontologist* 9(4, Part 1): 243–6.

beharko lirateke, goitik (administrazio publikoa) beherako (biztanleria) eskema tradizionala apurtuz (Hernández, 2016). Eraldaketa hau posible egiteko bide asko badaude ere, administrazioak lurraldearekiko duen eskumena deszentralizatzeko (Boira, 2003) proposamenetako bat hirigintza parte-hartzailearena da. Lan honetan proiektu parte-hartzaileei egiten zaie erreferentzia, Umeen Hirien proposamenaren gako bat baita, baina aipatu beharra dago, hiri inklusiboagoak lortzeko jardunean hainbat izan direla martxan jarri diren metodologia eta plangintzak.

Aurrekontu parte-hartzaileen bitartez, esaterako, biztanleriak lurraldea aztertuz, eremu honek dituen erronkak eta etorkizunean izan beharko lituzkeen proiektzioak zehazten ditu komunitatean, administrazio publikoarekin elkarlanean arituaz. Honela, hiri geografiak, auzi urbanistikoak babesteaz gain, interes sozialak ere kontuan izatea bermatuz. Proposamen honen bitartez, hirigintzako proiektu inklusiboagoak sortzen dira, bai eta hirien eraldaketa demokratizatzea ere (Hernández, 2016). Lanean azaltzen den kasua aurrekontu parte-hartzaile batzuetatik jaiotzen da, besteak beste.

Ondorioz, 60. hamarkadatik aurrera, ordura arte “geografia tradizionalan” alde batera utzitako kolektiboak ikustarazteko asmotan (Ortiz, 2007), sail ezberdinetako espezialistak lanean jardun izan dira proiektu parte-hartzaileen bitartez. Hirigintza parte-hartzaile batean, herritarren parte-hartzearen bitartez, hiri espazioak gureganatu eta gure nahiekin bat datorren hiria eraikitzeke aukera eskaintzen digu (Reyes, 2011). Ideiarekin bat eginik, munduko hainbat txokotan aurrekontu parte-hartzaileak jarri dituzte martxan, politika lokalak demokratizatzeko asmoarekin (Sintomer, 2005), esaterako Porto Alegreko eredua da maila internazionalan lehena eta ezagunena (Sánchez, 2002), nahiz eta Latino Amerika, Espainia (Sevilla, Kordoba edota Albacete kasu), Frantzia, Alemania eta Italian ere aurki daitezkeen egun mota honetako aurrekontuak. Egia bada ere, politika hauei esker hiria inklusiboagoa bilakatu eta orain arte hiriek eraikitako identitate homoginoa irauli nahi izan dela, esan beharra dago, politika horiek guztiak

gehienetan helduei bideratuak izan direla, haurrek hirietan duten papera bigarren maila batean utziz.

Honela ba, denboran zehar, espazio publikoak husten ari dira, bizitza kalean egin ez eta elkartzeko eremu izateari utziz, hirietako kaleak automobilentzako bideratuak dira orain (Tonucci, 2006). Are gehiago, espazio publikoak helduen eremu bilakatu dira, gurasoek espazio publikoek eskaintzen ez dituzten "aukerak" eremu pribatuetan bilatzeko jardunean, haurren presentzia kaleetan murriztu eta hurrei eksklusiboki diseinatutako eremuak egokitzat soilik esleituz (Tonucci, 2006). Ideia honi jarraiki, XX eta XXI. mendeko epidemiarekin bat egiten da, hots, gehiegizko babes eta denbora librearen kudeaketa efizientearekin (Marre, Román & Monnet, 2016).

Alde batetik, egun bizi dugun bizitza erritmoak, askotan hainbat zailtasun sortzen ditu lana eta familiaren uztarketan, non gurasoak haurra zaintzeko asti nahikorik izan ez eta eskolaz gaindiko aktibitateetara bidaltzea beste irtenbiderik ez duten izaten. Bestetik, helduak eremu publikoetan identifikatzen dituzten arriskuak -errealak edo hipotetikoak- kontuan izanda, haurraren bizitza eremu publikotik bereizten dute, guztiz antolatutako eta kontrolatutako espazioetan kokatuz (Marre, Román & Monnet, 2016). Gehienez, babes gisara, heldu baten zaintzapean ibiltzen dira haurrak eremu publikoetan. Azkenik irakaskuntza formala eta informalaren arteko dikotomia dago, non espazio pribatuek eskaintzen dituzten ikastaro eta metodologia ezberdinek haurren etorkizuna bideratzeko irtenbide egokiena bezala proiektatzen da. Ondorioz, egungo haurrek ez dute kaleetan jolasten, lehendabizi ez dutelako astirik, gurasoek beraien denbora libre okupatu dietelako aktibitate ezberdinekin (Tonucci, 2006); bigarrenik, kalea arriskutsutzat jota, eremu pribatuetan edo helduen zaintzapean "babestu" nahi dituztelako; eta, hirugarrenik, hiriak ez daudelako haien beharrak asetzeko pentsatuta.



Hau guztia honela, Haurtzaroaren Geografia sortzen da, hurrek leku-hartzen dituzten espazioak aztertzeko (Phillips, 2001). Espazio hauek fisikoak nahiz irudimenezkoak izan daitezke eta, bertan, jolastu eta beraien identitateak eraikiko dituzte (Phillips, 2001). Haurtzaroaren Geografiaren sustatzaileetako bat, Francesco Tonucci italiarra izan da. Nahiz eta bera pedagogo izan, bere proposamena sakonki geografikoa da eta geografia aplikatuaren alorraren barnekoa ulertu daiteke (Mendizàbal, 1997). Berak proiektu sinple bezain iraultzaile bat proposatu zuen: hiria geroz eta gehiago hurrei egokitu hala, hiritar guztientzat geroz eta inklusiboagoa izango da. Tonuccik dioenez, umeak ez dira kalean jolasten bi faktore espazialengatik: lehena, automobilek kalearen gainerako erabilerak ordezkatu dituelako eta, bigarrenik, hurrek ez dutelako espazio publikorik beraien nahi eta beharrak betetzeko (Tonucci, 2006)

Horrela, 1991. urtean, Fano hirian (Italia) udalarekin bat eginda, "Haurren Hiria" egitasmoa sortzen da: haurra parametro gisa hartuta, hiria gobernatzeko filosofia berri bat jartzen da martxan. Proiektuak umeak ditu epizentro, testuinguru sozial batetan kontuan izanda haurra banako xaloa, arriskugarritasun handia eta menpekotzat jotzen dela (Cloke & Jones, 2005), gizarteko kolektibo ahulenak ordezkatzeko baititu.

Proiektuaren helburua, umeek beraien nahiak adierazi eta entzunak izatea da. Hurrei hirian rol aktiboagoa emateko asmotan, proposamenak bi zutabe nagusitan banatzen da: haurren autonomia eta hauen parte-hartze aktiboa. Lehenengoari dagokionean, "eskolara bakarrik goaz" ekimena jarri zuten martxan, hurrak helduen laguntzarik behar izan gabe, lagunetik eskolara joan zitezten. Bigarrean berriz, gobernu lokalaren esku-hartzea posible izan zedin, bi lan-talde sortu ziren: alde batetik, *Haurren batzordea*, administrazioaren elkarlanean gobernantza hobeago bat lortzeko lan egiten duen kontseilua eta *Haur proiektugileak*, udaletxeko teknikoei haurren nahiak

proiektatzen laguntzen diena, honela teknikoak beraien ideiak proiektuetan egikaritzea posible eginaz.



2. irudia: Fanon eskolako bideak mugatzeko, trafiko bulegoak egindako bide-seinalea. *Città dei Bambini*, Comune di Fano [Webgunea]. Esteka: <https://www.comune.fano.pu.it/index.php?id=460>

1996. urtean proiektuak beste eskala bat hartu zuen, Zientzia eta Teknologia Kognitiboen Institutuan, ikerketa sail bat sortu zelako, *Laboratorio Internazionale “La città dei bambini”* izeneko. Gaur egun, haurren hirien sare internazional bat existitzen da, mundu osoko 9 estatutako 150 bat hiri hartzen dituen bere baitan. Estatu espainiarrari dagokionean, 35 hiri barnebiltzen ditu. Euskal Herrian, berriz, 2001. urtean Haurren Hiria Sarea<sup>3</sup> sortzen da, non Bilbo, Larrabetzu, Balmaseda, Ermua eta Tolosa bezalako herriak aurki daitezkeen.

Aipaturiko proiektu-kide guztiek, Tonucciren filosofiarekin bat eginik, haur eta nerabeek hirietan duten papera areagotu nahi dute, haurrek sortutako sustapen politika nahiz esku-hartze aktiboak aurrera eramanaz. Beraiek desio duten hiria “eraikitze” aukera luzatzen zaie, bai eta zenbait kontuetan erabakiak hartzeko ahalmena ere. Egitasmoan, alkateak barneratzen dira, bai eta administrazio lokalak ere, helburua ez

<sup>3</sup> <https://haurrenhiria.org/>

baita zerbitzu edota azpiegitura berriak sortzea haurrentzat, guztien onurarako hiria aldatzea baizik (Tonucci, 2006).

Tonuccik, hiria haurrentzat egokia izango bada, jarraitu beharreko zenbait pautak proposatzen ditu, herri nahiz hiriak mugimendu honetan parte-hartzera anima daitezen. Esan daiteke nolabaiteko dekalogo bat sortu zuela, irizpideok betez gero, "Haurren Hiriaren" lagun izendatuko delarik. Hona hemen zenbait adibide (Tonucci, 2013):

- *Hiri ederra*: bisualki politak izateaz haratago, oinezkoentzat abegitsua eta kognitiboki atsegina den hiria da, hots, kaleetan barrena oinez ibiltzeko aukera eskaintzen duen hiria.
- *Guztion kaleak*: eginkizun soziala, gune publikoa, topagunea, paseo edota jolas gunearen deskribapenak betetzen dituen espazioak; edota beste hitz batzuetan esanda, haurrek, hiritarrek eta zaharrek birkonkistatutako kaleak.
- *Espazio librea eta publikoa*: espazio publikoen hobekuntza; oinezkoen kale eta berdegune gehiago, honela kotxeen trafikoa murriztu edota jolas gune nahiz elkartrukerako espazio gehiago izateko.

Funtsean esan daiteke, Tonuccik haurrentzat erabilgarri diren espazio publikoak sortu nahi dituela modu parte-hartzaile baten bidez, posible eginaz euren autonomia berreskuratzea eta helduen zaintzarik behar izan gabe etxetik ateratzea. Haurrek espazio publikoak bere eginaz soilik berreskuratuko baitute hiriek galdu zuten bizitza, haurrentzat egoki diren espazioak mundu guztiarentzat baitira erabilgarri (Tonucci, 2013).

## **5.- METODOLOGIA**

Teoriatik praktikara salto eginda, Gasteizko Alde Zaharrean kokatzen den "Haurren Auzoa" egitasmoa ezagutzea da helburua. Proiektu honen inguruko

informazioa lortzeko erabili den teknika, metodo kualitatiboa izan da, zehazki, elkarrizketa erdi-irekiak eta analisi dokumentala. Metodologia honen laguntzaz, aurretiaz aipatutako Tonucciren "Haurren Hiria" esperientziaren inguruan sortutako Gasteizko proposamenaren hurbilketa egin nahi izan da. Lehenik eta behin, analisi dokumentala gauzatu da, berriak, dokumentalak, webguneak eta txosten administratiboak aztertuz. Bestalde, elkarrizketak subjektu (elkarrizketatzailea) eta objektuaren (elkarrizketatua) harreman zuzenaren emaitza izan dira, zeinetan elkarrizketatuen iritzi nahiz bizipen pertsonalak lortu ahal izan diren. Horrez gain, galdera irekien aldeko apustua egin da -nahiz eta elkarrizketatuak zuzenduak izan-, erantzun zehatzez haratago, gertaeren atzean egon daitekeen esanahia ezagutzeko; hala nola, proposamenaren arrazoiak, zergatiak edota, esperientziaren bitartez lortutako lorpenak eta bildutako ondorioak.

Honela ba, hiru elkarrizketa gauzatu dira, non bakoitzean profil ezberdin bat elkarrizketatua izan den:

- Gasteizko udaletxeko parte-hartze saileko langilea. Beraren bitartez, hiriko Udalak parte-hartze prozesuen inguruan indarrean dauden politikak eta sustapen asmoak ezagutu dira, bai eta Haurren Auzoa egitasmoan beraiek izan duten papera ere.
- Alde zaharreko auzoko sustatzaileetako bat. Haurren Auzoa egitasmoaren lehen pertsonako bizipenak azaldu zituen, eta horri esker, egitasmoa barnetik ezagutu ahal izan da. Honela ba, sustatzaileak, proposamenaren helburuak, egitura bai eta orain arte prozesuak izan duen bilakaerari buruzko informazioa jaso ahal izan zen.
- Nondik arkitektura estudioa. Egitasmoan dinamizatzailearen rola izan du eta beregain egon denez azterketa teknikoak egitea, gerora aipatuko diren txostenen egilea ere bada.

## 6.- TESTUINGURUA

### 6.1.-Gasteiz Hiria

Vitoria-Gasteiz, 243.815 biztanlerekin (EUSTAT, 2018), Arabako hiriburua da, bai eta Euskal Autonomia Erkidegokoa ere. Horrez gain, Erkidegoko bigarren hiririk handiena ere bada.

Arabako lurraldean bizi den populazioaren kokapen egiturak makrozefalia egoera garbi bat adierazten du, hots, lurralde historikoko populazioaren %74,9 (EUSTAT, 2018) hiriburuan bizi baita. Honen ondorioz, Gasteizek biztanle dentsitate oso handia dauka, 882,40 biz./km<sup>2</sup> da (EUSTAT, 2018), gainerako herriek (Amurrio eta Laudio izan ezik) 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten bitartean.


1979. urtean EAE-ko Autonomia Estatutua onartzearekin batera, Eusko Jaurlaritzak hiriburu autonomikotzat Gasteiz Hiria hautatu zuen. Honela ba, hiriburu administratibo bilakatu zen –egun %66,2-ko ekarpena egiten dio Arabako BPG-ari (EUSTAT, 2016)-, nahiz eta industriak oraindik ere pisurik baduen (Galdos & Ruiz, 2002), are gehiago, industrian lan egiten duen Gasteizko populazio aktiboari erreparatzen bazaio, tamaina ertaineko hirien ranking-ean lehengo postuan aurkitzen da (Torres & Alvarez, 2010), BPG-ari %28 ekarpena egiten diolarik (EUSTAT, 2016). Aipatu beharra da, lehen eta laugarren sektoreak oso ekarpen txikia dutela.

Esan daiteke, azkenengo 30 urteotan, Gasteizek hazkunde handia izan duela, oro har, 1981 eta 2011 bitartean, Arabako hiriburuak 50.000 biztanle baino gehiago irabazi zituen, 1987-2006 denbora esparruan, Gasteizen hiri-eremua %51 hasi zen bitartean (Juaristi, 2014). Joseba Juaristiren (2014) esanetan, Gasteizko Hiriak jaso duen egoera autonomikoak, hiriari ikuspegi bikoitz bat eskaini dio. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren eskutik indarrean jarri diren politika sektorial berriek (industrian, hezkuntzan, osasunean, zerbitzuetan, etab.) zerbitzu eta industria kokapen berriak ezarri ditu hiriburuan. Beste aldetik, sektore publikoaren presentzia dela-eta, *commuting*

fenomenoa sorrarazi du: are gehiago, Eusko Jaurlaritzak 2007. urtean egin zuen ikerketa<sup>4</sup> baten arabera, Gasteizko sektore publikoan lan egiten duten langileetatik %45,57 ez da bertan bizi (Garmendia, 2011) eta hiriburura egunero 83.000 pertsonak egiten dituzte mugimendu zentripetoak (Eusko Jaurlaritzak, 2007).

Hiriaren egiturari dagokionean, Gasteizek oinplano erradiokontzentrikoa du, Alde Zaharra eta aurretiaz kokatutako senda edota errepideak errespetatuz oinarriztat hartuta eraiki baita zabalkundea. Honela, hiriak 3 eraztun nagusi ditu, 6 barrutitan banatua den plano erregularreko etxaldeekin (Villapún, 2014).

## 6.2.- Gasteizko Alde Zaharra



Alde Zaharra, Santa Maria Katedralaren inguruan sortutako almendra formako eremua da (Villapún, 2014), defentsa funtziorako eraikitako harresiek mugatzen

<sup>4</sup>[http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/documentacion/estudio\\_movilidad\\_2007/es\\_def/adjuntos/1\\_Presen\\_cast.pdf](http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/documentacion/estudio_movilidad_2007/es_def/adjuntos/1_Presen_cast.pdf)

dutelarik. Hiru kale nagusi ditu, 2 harresi eta 4 ertzek mugatua- bai eta hauek iparraldetik hegoaldera zeharkatzen dituzten 9 kale ere -gremioen kaleak bezala ezagunak- (Villapún, 2014). Erdi Aroko morfologia du, kale estu eta aurrez aurre eraikitako etxebizitza trinkoekin (eremu berdeak eskasak dira bertan). Egitura hau dela- eta, batzuk oinezkoentzako bideak dira (bizilagunak sartu daitezke), nahiz eta aldapa handiak direla medio -auzoak, gainerako hiri espazioekin 22 metrotako desnibela dauka mendebaldetik eta 16-koa ekialdetik (Gasteizko Udala, 2008)-, askotan ez diren oso irisgarriak. Auzoan dagoen ostalaritza dela-eta, egunean hainbat kamioi eta furgoneta ibiltzen dira, bertako taberna eta komertzioetara merkantziak ekartzen, eremuan oinezkoentzako bideak oztopatzen dituelarik, bai eta zaratak eta zoladuran kalteak eraginez (Gasteizko Udala, 2008). Hala, aurretik esanda bezala, kaleak estuak dira, eta inguruan aparkalekurik ez dagoela kontuan izanda, autoak edonon aurki ohi dira. Arazoak konpondu nahian, 2 eskailera mekaniko eraiki izan dira azken urteetan. Beste kale batzuetan, berriz, autoek eta oinezkoek espazioa konpartitzen dute, Erdia Aroko egitura mantentzen denez, ez baitago bananduta espaloia eta errepidea. Aipatu, zonalde horretan eskola publiko bat kokatzen dela bai eta haur-eskola publiko bat ere, umeen bi parkerekin batera.

Gasteizko Alde Zaharra, hiriko zentro fisikoa bada ere, muino batean kokatua dagoela kontuan izanda, gainerako eremuekin izan ditzakeen interakzioak zailtzen ditu, (Villapún, 2014), aurretiaz zuen funtzio ekonomikoa ia erabat galduz. Horregatik, Alde Zaharra hiriko eremu degradatuena da, historikoki harrera eremu izanik gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsona eta gizataldeentzat (Gasteizko Udala, 2008).

Arazoak konpondu eta turismoa sustatzeko nahian, Gasteizko Udalak, 2007 eta 2013 urte bitartean *Urban Plan* izena daraman proiektuaren baitan, zenbait iniziatiba jarri zituen martxan Alde Zaharra birgaitzeko. Helburu honekin jarraituz, eremuan zenbait errehabilitazio politika integral jarri ziren martxan (Gasteizko Udala, 2008),

eremua urbanizatu, garbiketa eta saneamendu lanak egin, auzoaren argiztatzea nahiz etxebizitzan berritzeak bezalako ekintzak eginez. Esku-hartze hauekin, bizilagunen bizi kalitatea hobetzea bilatzen zen, eta helburu horretara iristeko bidea egin den arren, errehabilitazio soziala izan behar zuenak nolabaiteko kutsu turistikoa hartu du. Funtsean, Santa Maria Katedralaren berritzea edota auzoan kokatzen den ostalaritza sektorearen hobetzeak, auzotarrei aukera berriak sortu beharrian, aisialdia eta denbora libreak erakarrirako pertsona fluxuak ekarri baititu, bizilagunak bigarren maila batean utziz. Auzotar batzuen iritzian, gentrifikazio prozesu baten zantzuak ikusten dituzte (Noticias de Álava, 2017/11/12).

## **7.- ANALISIA**

2016. urtearen amaieran, Alde Zaharreko Ramón Bajo ikastetxe publikoko guraso talde batek "Haurren Auzoa" egitasmoa sortu zuen, auzoko umeek eremu publiko aproposik izan ez eta Francesco Tonucciren proiektu politikoaren ideiarekin bat eginik, auzoa umeentzako leku apropos batean bilakatzeko.

Auzo proiektua testuinguru eta kritika kolektibo baten baitan sortzen da. Alde batetik, auzoa aisialdi, ostalaritza eta turismo eremu dela kontuan izanda, auzokideen eta, batez ere, haurren beharrak asetzen ez direla identifikatzen da. Eta bestetik, auzoan presente den kotxeen zirkulazio ugariak, oinezkoen eremuak hartu dituztela, auzoan oinez ibiltzea arriskutsu eginaz (auzoko sustatzailea, bigarren elkarrizketa, 2019). Amaitzeko, espazio publikoak auzokideen elkar topaketa eta elkar trukerako eskasak direla argudiatzen dute, bai eta dauden gehienak kontsumo esparruak direla.

Hau guztia honela, auzoak haurrentzako leku aproposak diren eremuak sortu nahi ditu (auzoan aurretiaz dauden espazioak birgaituz eta automobilen zirkulazioa gutxituz), haurrak bertan seguru sentiarazteaz gain, auzoan mugitu eta espazioez gozatzeko helduen laguntzarik behar izan gabe, hauen autonomia sustatuz.

Haurren Auzoak, Tonucciren ideiarekin bat egiten du, non honek baieztatzen duen bezalaxe, "haurrentzat egokiak diren hiriak, guztientzat egoki bilakatuko dira",



hortaz, espazio publikoak auzokideen beharretara egokitu nahi dira: haurren, helduen eta auzotar guztien nahietara.

### **7.1.- Haurren Auzoaren helburuak**


Haurren Auzoa izenpean sortu zen egitasmoak, orain arte hirigintzako plangintzetan epizentrotzat hartu duen langile arrunta haurrarekin ordezkatzeari du helburu (Haurren Auzoa, 2017<sup>5</sup>). Hortaz, haurren ematen zaie hitza hiria birpentsatu eta diseinatzeko orduan, beraien ikuspegia, beharrak eta nahiak kontuan hartuz. Proiektuan gainera, haurra izaki anitz modura proiektatu da, hots, generorik gabekoa eta esperimentazioa sustatzen duena (Haurren Auzoa, 2017). Honek guztiarekin, denen beharrak bermatuko direla ziurtatu nahi da, generoa edota adina bezalako baldintzatzaileen eraginik pairatu gabe.

Haurren Auzoa ekimenak honako helburuak ditu:

- Auzoko hiru espazioen eraldaketa: Etxanobe parkea (E), Rafa plaza (R) eta Martin Ttipia (M) plazatxoa. Espazioek duden estatikotasuna eraitsiz, elementu ez-estruturalak ezarri eta haurren jolas librea bultzatuz. Espazio hauen eraldaketa hurrengo puntuan azaltzen den prozeduraren emaitza izango da.

---

5 Youtube: Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (2017/10/06). *E08 Alde Zaharra: Haurren Auzoa*. [Bideoa]. Esteka: <https://www.youtube.com/watch?v=EDokn2SRQ7Q>



3. irudia: Proiektuak proposatzen dituen 3 espazioen kokalekua. Nondik (2018) *Haurren Auzoaren proiektua [Pdf dokumentua]*. Auzoko sustatzaileek utzita.

- Alde Zaharreko auzoa, haurren beharretara egokitzea, bai eta helduena ere, honen bitartez, auzotar guztientzat baliagarri izateko.
- Auzoan egoten den trafikoa gutxitzea, kale batzuk oinezkoenak izan arren, oraindik ere kotxeen joan-etorriak ugariak direla medio.
- Espazio publikoaren inguruan hausnarketa eta metodologia parte-hartzailearen bitartez, haurren iritzia islatzea, auzo mailako proiektu amankomun bat martxan jartzeko.

Proiektuak hiru helburu nagusi baditu ere, proiektuaren eragin esparrua zabalagoa da, funtsean auzoko hiri espazioak hobetzeaz gain, auzotarrek beren iritziak - eta batez ere haurrenak- kontuan hartzea bilatzen dute, turistaren edo kanpoko interesen aurrean, bertan bizi diren bizilagunen eguneroko bizitzarekin bateragarriak diren espazioa izateko. Hau honela, espazio nahiz pentsaeren aldetara integral bat egin nahi da Haurren Auzoa egitasmoaren baitan.

## 7.2.-Prozesuaren azalpena

Aipatu bezala, ekimena auzotarren talde proposamen informal batetik hasi zen. Hala eta guztiz ere, denbora laburrera, proiektuak beste dimentsio bat hartu zuen, Gasteizko Udalak *Gasteiz Hobetuz* programan parte-hartzeko aukera suertatu baitzen. Udalaren programak eskaintzen zituen alde eta kontrako iritziak kontuan hartuta, egitasmoan proposamena plazaratu zuten.

### 7.2.1. Aurrekontu parte-hartzaileak

Gasteizko Udalean, mota honetako aurrekontuak 2016. urtetik aurrera hasi ziren aplikatzen, herritar orok, hainbat mailako lege-testuetan aldarrikatzen denez gero, udalerrri mailako gai publikoetan parte-hartzeko eskubidea baitu (Gasteizko Udala, 2016). Hau honela, hiri-administrazioa birdefinitzeari ekin zitzaion, Parte-hartze Zerbitzua sortuz, herritarrak sail honetara bideratu daitezkeen hiriko aurrekontuetan parte-hartzeko.

Izan ere, baliabide honekin, orain arte indarrean egon den eskema tradizionalarekin apurtu nahi da, hots, boto bidez herritarrek udal ordezkariak hautatzearena, ondoren udalerrri mailako erabakiak hartzeko (Gasteizko Udala, 2016). Hori dela eta, 2017. urtean sortutako *Gasteiz Hobetuz* izenpean, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuez baliaturik (gerora aipatuko diren proiektuen finantziazioa eta diru-laguntzak), herritarrak udalerriko aurrekontuak sortzeko metodologia eta prozesuan barneratzen da, erakunde politikoaren babesik behar izan gabe.

Ondorioz, administrazio publikoen, teknikarien eta herritarren arteko kultura berri baten aldeko apustua egin nahi izan da, jakinikoa baita herritarrek Udalari eskaini diezaioketen errealitatearen ezagutzak, gero Udalak martxan jarriko dituen ebaluazio eta tresnen plangintzak hobetzen dituela. Hala, aurretiaz martxan zeuden zerbitzu eta programak indartzen ahalbidetuz, gero herritar eta eragile ezberdinen beharretara egokituko ziren ekintza eta programak martxan jartzeko.

Arestian aipatu gisara, herritarren parte-hartze prozesua sustatu eta bultzatzeko 2 baliabide eskaintzen ditu Gasteizko Udalak: gizarte eragileek proposatutako parte-hartzea sustatzen duten egitasmo eta proiektuetan laguntzeko diru-laguntzak eta herritarrek proposatutako proiektuen finantziazioa.

Bi baliabide hauek, Gasteizen erroldatutako 16 urtetik gorako edonork (indibidualki edo taldean) eska ditzake, betiere funtsezko lau baldintza betetzen baditu: interes orokorrekoa izatea, Udalaren eskumenekoa, bideragarria eta 300.000€-ko muga ez gainditzea (Gasteizko Udala, 2015).

Udalaren formulario baten laguntzaz, proposatu nahi den proiektu edo egitasmoa aurkezten da. Behin proposamena argitaratuta, udal-organoak proposameneren bideragarritasun txostenak egiten ditu; lehenik aipatutako 4 baldintzak betetzen diren ziurtatzeko. Txostenak eginda, proiektuok jendaurrean argitaratzen dira hedabide ezberdinen bitartez (internet, irrati eta telebista, kartelgintza, etab.). Ondoren, herri mailako bozketa bat egiten da: proiektu guztien informazioa hiritarrentzako eskuragarri jartzen da eta denbora tarte bat eskaintzen da, non hiru proiektu aukeratu daitezke Gizarte Etxeetan, NANA aurkeztuz. Prozesu honekin, aurkeztutako boz gehien dituzten 16 lan hautatzen dira, ondoren udaleko ordezkariak ebaluatuko dituztenak.

Ebaluazioan, proiektuek parte-hartzea, elkarbizitza, euskara edo aniztasuna sustatzen duten aztertzen da. Horrela, Udalak proiektu batzuk lehenesten ditu eta, 50 bozka baino gehiago lortu baditu, bere bozkek 1,5-engatik biderkatzen dira.

“Haurren Auzoa” ekimenak 315 boto jaso zituen eta udaletxearen balorazioan 50 puntu baino gehiago atera zuenez, bozkek 1,5 faktorearengatik biderkatu ziren. 6. proiektu arrakastatsuen izan zen orotara. Hau honela, auzotarrek egindako proposamenak egitura formalagoa hartu zuen, bai eta 200.000 €-ko finantziazioa lortu ere.

### 7.2.2.- *Proiektua definitzeko metodologia*

Metodologia parte-hartzailearen bitartez egin da lan egitasmo honetan. Metodo honen bitartez, auzotarren hausnarketa iritziak bildu nahi ziren, ondoren iritzien zirriborroak egin eta nahiak gero errealitate bihurtzeko (auzoko sustatzailea, bigarren elkarrizketa, 2019). Hortaz, lehenengo instantzian sortutako taldetxoak auzoko eragile eta interesa zuen edonori zabaldu zion proiektuan parte-hartzeko gonbidapena. Beraz, prozesuan ondorengo elkarte nahiz pertsonak hartu zuten parte, guztira 423 pertsona izanik:

- Ramon Bajo eskolako haurrek
- Goian komunitate egitasmoko haur eta gazteek
- Alde Zaharreko umeek
- Auzoko hainbat eragilek: Gasteiz Txiki, Hala Bedi, Aurora eta Arkillos egoitzako aiton-amonak...

Horrez gain, mota honetako prozesuei forma profesionala emateko jakintza nahikorik ez zutela ohartuta, zenbait elkarte eta erakunde profesionalen laguntza izan zuten. Lehenik eta behin, aurretik gauzatutako herri proiektu ezberdinetako kideekin bildu ziren hauen esperientzietatik ikasteko. Bigarrenik, Nondik<sup>6</sup> arkitektura estudioarekin jarri ziren harremanetan, beraien lanetan arkitektura eta pedagogia uztartzeaz arduratzen direla kontuan izanda, metodologia parte-hartzailea egituratuko zituen faseak, diseinuak, tailerrak etab. gauzatu zituzten. Hirugarrenik, Txatxilipurdi<sup>7</sup> herrigintza elkartearen laguntza izan zuten, non herritarren autogestioaren aldeko hautuan laguntzeko.

Horrela, Haurren Auzoa taldeak metodologia zehatz bat garatu zuten proiektua zehazteko asmotan, ondoko pausuak jarraiki:

*Behaketa:* aurretiaz prestatutako fitxekin helduek behaketa saioak egin zituzten eskolako eta auzoko haurrekin. Bertan, umeek zer nolako jolasak egiten zituzten, nola mugitu nahiz erabiltzen zuten espazioak paperezatu ziren.

---

<sup>6</sup><https://nondik-lab.com/eu/>

<sup>7</sup><http://www.txatxilipurdi.com/>

- *Tailerrak*: nolabaiteko baliabideen erakusketa bidez, argazkiak eta abarrekin, jolas aukera ezberdinak aurkeztu zitzaizkien hurrei; gero beraiek hautatu zezaten horietatik zein jolas zituzten gustukoak eta zein ez.
- *Prozesu parte-hartzaileak*: hirugarren pausu honetan, Ramon Bajo eskolarekin elkarlanean, maketen laguntzaz hurrek beraien ideiak eta nahiak irudikatu zituzten.
- *Erakusketa*: hurrek egindako maketekin erakusketa egin zen.



4. irudia: Erakusketan parte-hartu zuten haur talde baten maketa.. *Nondik (2018) Haurren Auzoaren proiektua [Pdf dokumentua]. Auzoko sustatzaileek utzita.*

- *Auzotarren ekarpena*: erakusketara bertaratzeko gonbidapenak luzatu zitzaizkien auzoko eragile eta elkarte ezberdinei, prozesuan parte hartzeaz gain, auziaren inguruko iritziak eta ekarpenak egin ahal izateko.
- *Proiektuaren proposamena*: informazio iturri ezberdinetatik lortutakoarekin zirriborro bat idatzi zen, auzotarren nahiak bilduko zituenak. Behin informazioa bilduta, Nondik arkitektura estudiokoek proiektu bat proposatu zuten. Honek diru-laguntza jaso zuen udaletxearen esleipen baten bitartez, Haurren Auzoaren egitasmoa zehazteko helburuarekin.




## prozesu parte-hartzailea

5. irudia: Prozesu parte hartzailearen zenbait argazki. Nondik (2018) *Haurren Auzoaren proiektua* [Pdf dokumentua]. Auzoko sustatzaileek utzita.

### 7.3.-Proiektuaren azkenengo proposamena

Puntu honetan, gaur egun mahaiaren gainean dauden Haurren Auzoaren proposamenak aipatzen dira, bai auzoko sustatzaileek aurkeztutakoa, bai eta Gasteizko Udalak egindakoa. Ondoren, bi ikuspegiaren artean dauden ezberdintasunak aztertuko dira.




Rafa Plazaren ideia-proiektua. Nondik ( 2018 *Haurren Auzoaren proiektua [Pdf dokumentua]*. Auzoko sustatzaileek utzita.

### 7.3.1.- Espazioen eraldaketa

Behin eta berriz aipatu gisara, Haurren Auzoa egitasmoak bere helburuetan hiru espazioen eraldaketa zuen aurreikusita. Eta espazio horien diseinua, 2018ko udaberrian auzoak bizi izandako prozesu parte-hartzailearen ondorio da. Ideiak lortu eta josteko ardura, Nondik arkitektura estudioarena izan da, beraz, auzotarrek plazaratutako txostena Nondikekoek egin izan da.

Prozesu parte-hartzailearen garapena nahiz proposamena, txosten oparo batean jaso izan da, eta bertan, haurrek nahi eta beharrak identifikatzeaz gain, eremuaren azterketa tekniko nahiz haurrek maketa bitartez egindako proiektuen proposamenak daude. Honela ba, espazio bakoitzaren ahuleziak nahiz potentzialak kontuan hartuta, umeez proposatutako ideietan oinarrituta, eraldatu nahi den espazio bakoitzari rol bat esleitu zitzaion (Nondik, 2018):





6. irudia: Haurren Auzoaren proiektuaren eskema, identifikazioa eta elementuak. Nondik (2018)  
*Haurren Auzoaren proiektua [Pdf dokumentua]*. Auzoko sustatzaileek utzita.

- *Rafa plaza (arrosa)*: espazioak duen azalera dela-, elkartzeko espazio gisara proiektatu da, baina eremuaren kokapena kontuan hartuta (hiriko gaztetxearen aldamenean dago) eta aisialdiagatik bertaratu daitezkeen pertsona ezberdinen elkargune potentzial izanik, guztientzat erabilgarri izateko plaza ez hesitzea erabakitzeaz gain, elementu mugikorrek ez jartzea aurreikusten da, erraz garbitu daitezkeen elementuak ezarriz.
- *Etxanobe parkea (horia)*: parkeak bi altuera ezberdin dituela-eta, 2 espazioen arteko lotura bat egingo da, bi espazioei elementu natural eta babeslekuekin bizia emanaz. Honi esker, babesteko leku ugari egongo da, bai eta biltegi bat ere material ezberdinak gordetzeko.
- *Martin Tipia (urdina)*: eremuak duen morfologiaz baliatuta, hesitutako espazioa izango da, egunean zehar esperientzia sentikor berriak sustatzeko eremu izatea nahi da, babesleku izateaz gain, jolas sentsorialak nahiz artistikoak sustatzeko espazio izango baita.

Dena den, Gasteizko Udalak atzera bota zuen auzotarrek Nondik arkitektura estudioaren laguntzaz egindako proposamena, honen aurrekontuak aurretik ezarritako baldintza (300.000€-ko muga zegoen ezarrita) gainditzen zuela-eta (auzoko sustatzailea, bigarren elkarrizketa, 2019).

Hau honela, Gasteizko Udalak auzotarrek hasieran proposatzen zituzten hiru espazioetatik bakarra eraldatuko zuela adierazi zuen. Hautatutako espazio librea, Rafa plaza da (6.1. puntuan "R" hizkia dagokiona) guztira 1.660 m<sup>2</sup> dituen (hiruretatik handiena da).



7. irudia: Rafa plazaren gaur egungo egoera adierazten duen ortoargazkia. Nondik (2018) *Haurren Auzoaren proiektua [Pdf dokumentua]*. Auzoko sustatzaileek utzita.

Espazio horri dagokionez, hau da Nondik estudioak eta haurren Auzoa taldeak egindako proposamena:



Umeek proposatutako ideietan oinarrituta, Rafa Plazako jolas-ingurune berria diseinatzeko kontuan izan beharreko irizpide eta ideia garrantzitsuenak. Nondik (2018) *Haurren Auzoaren proiektua [Pdf dokumentua]*. Auzoko sustatzaileek utzita.

Beraz, Udalak atzera bota zuen Nondik-en proposamena eta 2019ko martxoan ondorengo proiektua proposatu zien auzotarrei:



8. irudia: Udaletxeak, Haurren Auzorako egindako proposamena. Gasteizko Udala (2019) *Haurren Auzoaren proiektua [Pdf dokumentua]*. Udaleko Parte-hartze teknikariek utzita.

Goiko argazkian ikusten den gisara, Rafa plazak bere oinarrizko forma mantenduko du, eremu irekia eta goialdean aparkalekuak bere horretan jarraituko dutelarik, hala ere, espazioak berak zenbait aldaketa jasango ditu (Gasteizko Udala, 1. elkarrizketa, 2019):

Lehenik eta behin, aurretik kokatuta zeuden elementu estatikoak kendu egingo dira, hala nola: umeen parkea, kale-aulkiak eta saskibaloiko kantxa, nahiz eta proiektuan ikus daitekeen modura, gero ere saskiak egongo diren. Eraldaketa prozesua gauzatzeko, belardiak ere kendu egingo dira eta beste batzuk sortu.



9. irudia: Rafa plazaren gaur egungo egoera. Nondik (2018) *Haurren Auzoaren proiektua* [Pdf dokumentua]. Auzoko sustatzaileek utzita.

Bigarrenik, mota ezberdinetako elementu ez-estatikoak kokatuko dira; belarrezko antzezlekua, egurrezko plataformak nahiz paretak (eskalatu edota igo-jaitsi egiteko), toboganak, egokitutako zabuak edota ping-pongeko mahaia batzuk esatearren.

Hau guztia honela, bi proposamenen (Udala eta auzokideena) arteko ezberdintasuna nabarmena da, begirada bisual batetik haratago, espazioaren kontzeptuan ikuspegi ezberdinak landu baitira. Are gehiago, badirudi Udalaren helburuak eta auzotarrenak ez direla berdinak, nolabait auzotarrek haurren nahiak mugarik gabe jaso nahi zituzten bitartean (Nondik, 3. elkarrizketa, 2019), Udalak muga ekonomikoari atxikitzen die proiektua gauzatzearen ezintasuna. Gainera, auzokoek haurrentzako espazio egokiak lortu nahi dituzten bitartean, Udalak nahiago izan du auzoko espazio publikoen itxura hobetzea (auzoko sustatzailea, 2. elkarrizketa, 2019). Funtsean, Udalak proposamenean zehaztutako hiru espazioetatik gaizkien zegoena hautatu du, parte-hartze prozesuan haurrek esandako iritziak kontutan izan gabe, elementu ezberdinak txertatuz. Halaber, auzotarren ustetan, udalekoek ez dute kontutan izan auzoa asteburuetan aisialdi eta gaztedien arrera auzoa dela, hortaz, mota honetako espazioek lehenagotik zeuden arazoak (txiza, zaborra, kristalak lurrian...) mantentzen ditu, gerora haurrentzat eremua arriskutsu eginaz.

### *7.3.2.- Trafikoaren proposamena*

Haurren Auzoaren egitasmoaren errealitatea benetan gauzatu nahi bada, auzotarrek ezinbestekoa ikusten dute aurretiaz aipatutako hiru jolas guneen arteko erlazioa eta ibilbidea zaintzea, Alde Zaharrean trafiko mugatu eta mantsotuz. Izan ere, haurren autonomia sustatzeko, oinezkoek automobilen trafikoari lekua irabazi behar die (Nondik, 2018), autoek kaleak arriskutsu bilakatu baitituzte haurrentzat (Tonucci, 2013). Beraz, hiriak trafikoaren aldeko politiketatik, bizikleta eta oinezkoen aldeko erabakiak hartzera igaro behar du, bai eta oinezkoen kale gehiago sortuz (Tonucci, 2006).

Idea honekin bat eginik, Haurren Auzoa ekimenekoek Alde Zaharreko bizilagun ezberdinen inguruan sortutako trafikoaren proposamenarekin bat egin dute. Hala, proposamen honek daraman erritmoa eta auzoko eragile ezberdinen babes dela-eta, esan daiteke egun proiektu independente bilakatu dela (auzoko sustatzailea, bigarren elkarrizketa, 2019).

Bizilagunek argudiatzen dute (Radio Vitoria, 2019/02/08), egunero sufritzen duten trafikoaren joan etorriek, oinez dabiltzan auzotarrei arriskua sortzeaz gain (urrian Ramón Bajoko ikasle batek ikastetxearen parean istripu bat izan zuen), ostalaritzako kamioien zama lanek kalean oztopo handiak sortzen dituztela.

Lehenagotik trafikoaren arazoari erantzuna eman nahian, Gasteizko Udalak, 2012. urtean automobilen mugatu edota trafikoa arintzeko hiriko 45 kaletan gehienezko abiadura 30km/h-tan ezarri zuen. Neurri honekin, Udalak kaleak elkarbizitza eremu bilakatu nahi zituen, oinezko, bizikleta eta autoen arteko erlazioak hobetu eta errepideko segurtasuna areagotzeko. Baina Alde Zaharrean ez zuen eragin handiegirik izan, kale batzuk soilik mugatu baitziren, arazoa konpontzera iritsi gabe.

Auzi honen aurrean auzotarrei eta oinezkoei segurtasuna bermatzeko, “auzoko eragile sozial ezberdinek (Ramon Bajoko gurasoen elkarteak, Goian, Haurren Auzoa eta Gasteiz Txiki auzo elkarteak) bost proposamen luzatzen dizkiote Gasteizko Udalari” (Radio Vitoria, 2019/02/08):

- Auzoko aparkalekuak kendu eta auzotarrei Alde Zaharraren inguruan kokatzen diren bost parking pribatu ezberdinetan plazak ematea.
- Alde Zaharrera autoz sartzeko dauden bost sarbideak pibote batzuen laguntzaz ixtea, honela txartela duten auzotarrak eta ostalariak soilik ahalko dute bertara autoz sartu.
- Muinoaren goialdea guztiz oinezkoentzat egitea.
- Alde Zaharreko auzoan automobilen abiadura 20km/h murriztea.
- Zama-lanak egiteko ordutegi bat finkatzea.



10. irudia: Auzotarren proposamena Alde Zaharrean trafikoa mantsotu eta mugatzeko. (2019/03/28)  
 Gasteizhoy.org [Irudia]. Esteka: <https://www.gasteizhoy.com/aparcamiento-coches-casco-viejo/>

Aipaturiko proposamen hauekin eragileek, hiriko udalak auzotarren segurtasunaren aldeko politikak martxan jartzea nahi dute, bai eta auzoak bere morfologia dela-eta dituen espazio arazoak konpontzea kaleetatik autoak kenduz. Hau guztia posible izan dadin, eragileak auzoan kokatzen diren ostalaritzako langile nahiz salgaien-banatzailleekin jarri dira harremanetan. Hala ere, gaur-gaurkoz proposamenaz haratago ez da bateratzerik nahiz Udalaren erabakirik gauzatu.

### 7.3 Prozesuaren arrakasten eta zailtasunen balorazioa

Haurren Auzoa prozesuak bere indargune eta arrakastak izan ditu baina baita bere zailtasun eta erronkak ere. Arrakastei dagokionez, auzo mailan sustatu den parte-hartzea azpimarratu daiteke, batzuetan norbanako edo talde oso ezberdinen artean. Hasiera batetan, ezberdinen artean adostasunetara heltzea erronka moduan ikusten bazen ere, funtsean prozesuaren indargune bezala hartzen da. Auzokideen artean

harremanak sendotu eta berriak sortu dira. Gainera, Alde zaharraren eta espazio publikoaren egoera eta erabileren inguruko hausnarketa zabaldu egin da. Horrez gain, *Gasteiz Hobetuz* aurrekontu parte-hartzailetan hautatua izatea arrakasta handia izan zen eta bidea ireki zion proiektuaren gauzatzeari.

Erronkei dagokionez, edozein prozesu parte-hartzaileenak aipatu daitezke; hots, jendea parte-hartze ekintzetara erakartzea, iritzi guztiak jaso ahal izatea, eta abar. Gainera, proiektu honen ezaugarriengatik, beste batzuk gehitzen dira: haur eta helduen ordutegiak uztartzea edo haurren proposamen anitzak bateratzea, besteak beste. Dena den, prozesuan bizi izan den zailtasunik nabarmena auzoko eragile eta Udalaren arteko harremana litzateke. Izan ere, Haurren Auzoa egitasmoa auzolan izatetik, Gasteizko Udalak bideratutako proiektu izatera igaro zen *Gasteiz Hobetuz* programari esker.

Hasiera batetan, Udalaren Parte-hartze Zerbitzuarekin harremana oso ona izan zen. Auzotarrek baieztatzen dutenez, teknikariak hasiera-hasieratik proiektuarekin bat egin eta laguntzeko prest azaldu ziren. Baina nolabaiteko zailtasunak, espazio publikoa eta baliabide naturalen saileko zinegotziekin akordioak lortzerakoan hasi zen (auzoko sustatzailea, 2. elkarrizketa, 2019).

Udalari proposamena, Nondik arkitektura estudioak sortutako txostenaren bitartez egin zitzaion, baina Udalak proiektu hura atzera bota zuen, honen egikaritzea garestiegia zela argudiatuta. Auzokoak arazo honetaz jakitun dira, txostena aurrekontuaren baldintza kontuan izan gabe sortu baitzen, haurren ametsetako proposamenak bilduz (Nondik, hirugarren elkarrizketa, 2019) Baina beraiek diotenez, proiektua ideala izateak, ez du egitasmoa utopiko egiten (auzoko sustatzailea, bigarren elkarrizketa, 2019), auzoko sustatzaileen iritziz, proposamena egiteko modukoa da, beste erritmo eta dimentsiotan bada ere. Are gehiago, auzokoek proposamenarekin jarraitu nahi dute, hiru espazioen birgaitzeak ematen baitio zentzua beraien proiektu osoari.



Dena den, zaila da horrelako eraldaketa proiektu bat aurrera eramatea modu autonomoan Udalaren babesik gabe. Alde batetik, hirigintzako proiektua izanik, plangintza eta erabakitze eskumena alkatearena da, orduan, udaleko alderdi politikoaren ideologiak proiektuan zuzenean eragiten du. Bestetik berriz, goi karguen eta zinegotzien nahien arabera prozesua gelditu edo oztopatu egiten da (auzoko sustatzailea, bigarren elkarrizketa, 2019). Honen adibide litzateke, espazioen eraldaketa eta trafikoaren murriztapen proposamenak denbora-bilakaera ezberdina izatea, nahiz eta prozesu berdinetik abiatu.

Auzoko sustatzaileen ustetan, arazoaren muina Udalaren lantaldearen gehiegizko hierarkizazioan dago; zeren eta, burokraziak prozesua ikaragarri luzatzen du, aurre proiektuaren datak errespetatzea zaila eginez (auzoko sustatzailea, bigarren elkarrizketa, 2019). Guzti honek hasierako proposamenak eraldatzea eta oso motel aurrera egitea eragiten du, auzo eragileen atsekaberako.

Tamalez, gaur gaurkoz prozesua oso geldoa eta gainera ikuspegi luzekoa ematen du. 2018ko abenduan proiektua abian jartzea aurreikusten bazen ere, 2019ko maiatzean oraindik Udalaren proposamena adosten dabilta (Nondik, hirugarren elkarrizketa, 2019). Udalak 2019ko martxoan azken proposamen bat egin zien, Rafa plaza eraldatzekoa, baina auzoko sustatzaileak ez datoz Udalaren asmoekin bat. Halaber, auzokoak beldur dira lau urte eta gero indarrean dagoen alderdi politikoa aldatuko balitz, orain arte egindako lan guztiz deuseztatuko ote den.

Bestetik, auzoan aurrera eramandako parte-hartze prozesuaren emaitzak Udalak benetan kontutan hartzea beste erronka litzateke. Izan ere, auzotarren parte-hartze prozesuaren txostenean bildutakoa ebaluazio tresnetan txertatu da, baina ideia-aren kontzeptuari dagokionean, proiektuari beste mota bateko ikuspegi bat eman diote udaleko zinegotziek.

## **8.- ONDORIOAK**

Azkenengo 40 urteotan, Gasteizko Hiriak eraldaketa izugarria bizi izan du, egoera sozioekonomikoak hala baldintzatuta, hiriko periferian etxebizitza ugari eraiki dira eta alde zaharreko auzoak populazioa galdu du, pixkanaka degradatuz eta gaueko aisialdian eta turismoan espezializatuz... Testuinguru honetan, auzoko guraso talde bat elkartu eta “Haurren Auzoa” proiektua sortzen da 2017. urtean, auzoko espazio publiko eta libreen eskasiari eta trafikoa sortzen dituen arazoei irtenbide bat emateko. Auzo proiektuak, Francesco Tonucci pedagogoaren ideietatik abiatu zen eta bi helburu finkatuko zituen taldeak: alde batetik, umeentzako egokiak diren espazioak sortzea eta bestetik, beraien autonomia sustatuko duten ekintzak proposatzea.

2018-ko udaberrian, auzoko 400 pertsona baino gehiago (horien artean banakoak nahiz elkarteak zeuden) prozesu parte-hartzaile batean barneratu ziren, non helduek nahiz haurrek egindako behaketen bidez, denen artean espazio publikoaren hausnarketa eta parte-hartze kolektibo bat gauzatu zen. Horri esker, 3 espazioren eraldaketa proposatzen zuen proiektu amankomuna sortu zen. Proiektuak Udalaren aurrekontu parte-hartzaileen barnean hautatua izan zen baina, egikaritzeko orduan, hainbat muga eta aldaketa ezarri ditu erakundeak. Eta hori izan da prozesuaren zailtasunik garrantzitsuena.

Gasteizko proiektua Tonucci-ren proposamenekin alderatzen badugu hainbat paralelotasun eta ezberdintasun antzeman ditzakegu. Alde batetik, auzotarren proposamenaren espiritua aztertzen bada, Tonucciren ideiekin bat egiten dutela ikusten dugu zenbait puntutan: espazio publikoan esku-hartzea haurren ikuspegitik baina hiritar guztien onurarako, parte-hartzean oinarritzea, haurren autonomia sustatzea, haurra izaki anitz bezala hartzea, espazio publikoa elkarbizitzarako eta harremanetarako bideratzea, trafikoa mugatzea, eta abar. Tonucciren dekalogoari erreparatzen badiogu, espazio publikoa ederragoa eta inklusiboagoa bihurtzeaz gain, heldu eta haurren parte-hartzea

sustatu nahi da. Gasteizko prozesuak helburu hauek barneratu ditu, baina prozesuak aurrera egin ahala hainbat ezberdintasun ere eman dira:

Alde batetik, Tonucciren proposamenean, hurrek administrazio lokalarekin elkarlanean egiten dituzte proiektuak eta erabakitze eskubide bat eskaintzen zaie. Gasteizko kasuan berriz, haurren nahiak eta beharrak helduek jaso eta papereztatu dituzte, nahiz eta behaketa eta parte-hartze metodologietan oinarritu. Gainera, hurrek ez dute Gasteizko Udalarekin harremanik izan eta haurren parte-hartzean agertutako hainbat kezka eta eskaera (Nondik arkitektura estudioaren proposamenean agertzen zirenak) ez dira jaso Udalaren azken proiektuan. Izan ere, umeen parte-hartzea ez da modu jarrai batetan eman eta Udalak ez du eginkizun hori bere gain hartu.

Bestalde, azken proposamena espazio bakar baten eraldatzean datza. Hasiera batetan, helburua Alde Zaharreko goiko alde guztia eraldatzea bazen ere, elkarbizitza eta haurren autonomia sustatzeko (Tonucciren idiekin bat), azken proiektua parke baten eraldaketara mugatu da. Gertatu daiteke, gainera, parke hau haurren erabilerara mugatzea eta hirigintza modernoaren “zonifikazioa” sakontzea (haurrentzako espazioak, zaharrentzako espazioak), hasierako asmoetan zegoen ezberdinen arteko elkartruke hori mugatuz.

Dena den, trafikoa mugatzearen proposamena aurrera doa beste bide batetik eta “Haurren Auzoa” taldeak beste espazioen eraldaketa bilatzen jarraituko du. Horrek denak lagundu dezake Alde Zaharreko muinoa benetako Haurren Auzoa bihurtzen: haurren autonomia sustatzen duena (umeak bakarrik joan daitezke eskolara) eta auzotar guztien beharrak errespetatzen eta ezberdinen arteko elkartzea eta elkartrukea eragiten duena.

Laburbilduz, Gasteizko Alde Zaharreko “Haurren Auzoa” egitasmoa, marko teorikoan aipatu den behetik gorako hirigintza proposamenaren adibide litzateke. Izan ere, auzoan presente zen arazoaren aurrean erantzun instituzionalak nahikoak ez zirela iritzita, auzo eskalako konponbide bat ematea proposatu da, metodologia parte-hartzailearen bitartez. Espazio publikoaren inguruko hausnarketa bat jarri da martxan eta, herritarren iritziak kontuan hartu eta gero, proiektu amankomun bat sortu da. Hala ere, espazioaren pentsaeretan benetako aldaketak ezarri nahi badira, ezinbestekoa da dimentsio ezberdinean bada ere, prozesuan bildutako ikuspuntuak azkenengo proposamenean islatzea. Zeren, mota honetako proiektuak errealitate bihurtzeak gehitzen baitio balioa prozesuari, landutakoa eta eztabaidatutakoa espazioan egikaritzuz.

## 9.- BIBLIOGRAFIA

- Arbeloa, E. (2012). Presupuestos participativos. [Pdf dokumentua], *FORO. Revista de Ciencias Jurídicas y Sociales Nueva Epoca*, 15. liburukia. (2. zk.), 243-253 or. doi: [10.5209/rev\\_FORO.2012.v15.n2.41493](https://doi.org/10.5209/rev_FORO.2012.v15.n2.41493)
- Arich S.A.(2008). *Plan Urban Vitoria-Gasteiz 2007-2013*. [dokumentu digitala], Issuu plataforma. Web esteka: [https://issuu.com/arichsa/docs/proyecto\\_urban](https://issuu.com/arichsa/docs/proyecto_urban)
- Arich S.A. La ciudad histórica de Vitoria-Gasteiz [Pdf dokumentua], *Five plataforma*. Esteka: [http://www.five.es/descargas/archivos/Regenera/02\\_Carlos\\_Rodriguez\\_Vitoria-Gasteiz.pdf](http://www.five.es/descargas/archivos/Regenera/02_Carlos_Rodriguez_Vitoria-Gasteiz.pdf)
- Associazione Saltabanco. (2019). *Il decalogo Arciragazzi sulla città amica dei bambini e delle bambine*. [Webgunea]. Esteka: [http://www.associazionesaltabanco.it/old/index.php?option=com\\_content&view=article&id=44&Itemid=39.html?jij=1557845610196&jjj=1557845611971&jjj=1557845613155](http://www.associazionesaltabanco.it/old/index.php?option=com_content&view=article&id=44&Itemid=39.html?jij=1557845610196&jjj=1557845611971&jjj=1557845613155)
- Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (2008). "3.3. Morfología urbana". [Pdf dokumentua], *Vitoria-gasteiz.org*. Esteka: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/39/73/23973.pdf>
- Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (2015). Herritarren Parte Hartzeko Plana - 2015-2019 legegintzaldirako bide-orria. [Pdf dokumentua], *Vitoria-gasteiz.org*. Esteka: [https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=eu&uid=u6270be56\\_151a936a091\\_7f9d](https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=eu&uid=u6270be56_151a936a091_7f9d)
- Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (2017). Más espacio para las personas. [Webgunea], *Vitoria-gasteiz.org*. Esteka: [https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=es&uid=u\\_295bc757\\_13bb7041602\\_7fa4](https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=es&uid=u_295bc757_13bb7041602_7fa4)
- Boira, J.V. (2003). La participación ciudadana y el urbanismo. ¿Radicalizar la democracia o democratizar el espacio?. [Pdf dokumentua] *Instituto de Estudios Socioeconómicos de Cajamar*. Esteka: <https://www.publicacionescajamar.es/pdf/publicaciones-periodicas/mediterraneo-economico/3/3-32.pdf>

- Butler, R. N. (1969). Age-ism: Another Form of Bigotry. [liburua], *The Gerontologist* 9 (4, 1. zatia): 243–6.
- Cloke, P. & Jones O. (2005). “Unclaimed territory” : childhood and disordered space(s). *Social & Cultural Geography*, 6 (3) 311-333 or. doi: [10.1080/14649360500111154](https://doi.org/10.1080/14649360500111154)
- Comune di Fano (2019). "*Progettazione Partecipata*". [irudia]. Esteka: <https://www.comune.fano.pu.it/index.php?id=460>
- Del Campo J.L. & Larretxi A. (2019/01/12). El Casco Viejo demanda regular el tráfico y soluciones a la pérdida de aparcamientos. [albistea], *Noticias de Álava*. Esteka: <https://www.noticiasdealava.eus/2019/01/12/araba/el-casco-viejo-demanda-regular-el-trafico-y-soluciones-a-la-perdida-de-aparcamientos>
- Euskadi.eus. (2007). *Estudio de la movilidad de la Comunidad Autónoma Vasca*. [Pdf dokumentua], Gobierno Vasco. Departamento de Transportes y Obras Públicas. Esteka: [http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/documentacion/estudio\\_movilidad\\_2007/es\\_def/adjuntos/1\\_Presen\\_cast.pdf](http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/documentacion/estudio_movilidad_2007/es_def/adjuntos/1_Presen_cast.pdf)
- Euskadi.eus. (2019). Banco de datos municipal. *Euskal Estatistika Erakundea*. Esteka: [http://www.eustat.eus/udalak/arbol\\_banco\\_municipal.html](http://www.eustat.eus/udalak/arbol_banco_municipal.html)
- Galdos, R. y Ruiz, E. (2002): “La continuidad de la industria: estructura y localización industrial en el País Vasco” . *Eria*, 59, pp. 357-370. [Pdf dokumentua]. Dialnet. Esteka: <file:///C:/Users/Usuario/Downloads/Dialnet-ContinuidadDeLaIndustria-858006.pdf>
- Garmendia, J. M. (2011): *Estudio sobre la incidencia económica de la capitalidad autonómica en Vitoria-Gasteiz*. Vitoria-Gasteiz, Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea, Departamento de Economía Aplicada. doi: [10.3989/estgeogr.201405](https://doi.org/10.3989/estgeogr.201405)
- Gatón, N. (2019/03/28) Casco Viejo quiere eliminar los coches de su barrio. [Albistea] *Gasteizhoy.org*. Esteka: <https://www.gasteizhoy.com/aparcamiento-coches-casco-viejo/>
- Gatón N. (2012/09/17) Vitoria reduce su velocidad a 30km/h en 45 calles [Albistea] *Gasteizhoy.org*. Esteka: <https://www.gasteizhoy.com/vitoria-reduce-la-velocidad-de-17-calles-a-30-kmh/>

- Hernández, M.J. (2016). *Urbanismo participativo: construcción del espacio urbano* [Pdf dokumentua], Dialnet. Esteka: <https://dialnet.unirioja.es/download/articulo/5738938.pdf>
- Juaristi, J. (2014). Vitoria-Gasteiz: la transformación de una capital autonómica (1980-2010). [Pdf dokumentua] *Estudios Geográficos 65 liburukia*, (276. zk.) 177-218 or. Esteka: <http://estudiosgeograficos.revistas.csic.es/index.php/estudiosgeograficos/article/view/422/422>
- Marre, D., Román, B. & Nadja, M. (2016). Crecer en la ciudad: entre prohibiciones parentales y deseos de libertad. [Pdf dokumentua], *AFIN*, 89. Esteka: <https://hal.archives-ouvertes.fr/hal-01611471>
- Mattson, K. (1978). Una introducción a la geografía radical. [Pdf dokumentua], *Cuadernos críticos de la geografía humana*. Esteka: <http://titulaciongeografia-sevilla.es/contenidos/profesores/materiales/archivos/KirkMattson1978.pdf>
- Mendizabal i Riera, E.(1997). Portic. [aldizkaria], *Treballs de la Societat Catalana de Geografia*, 45, vol XII: 5-8.
- Mumford, L. (1945). La pianificazione per le diverse fasi della vita [liburua], *Urbanistica*, 1, 7-11 or.
- Nondik arkitektura estudioa (2018) Haurren Auzoa ideia proiektua [Pdf dokumentua]
- Nondik arkitektura estudioa (2018) Haurren Auzoa: prozesuaren diseinua [Pdf dokumentua]
- Nondik arkitektura estudioa (2018) Haurren Auzoa parte hartze zerbitzuaren memoria [Pdf dokumentua]
- Ortiz, A. (2007). Geografías de la infancia: descubriendo "nuevas formas" de ver y de entender el mundo. [Pdf dokumentua], *Documents d'anàlisi geogràfica*, (49 zk.), 197-216 or. Esteka: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo;jsessionid=13132881DB766A3A74D3CCDED01EB263.dialnet02?codigo=2516712>
- Phillips, R. (2001). Geographies of childhood: introduction [Pdf dokumentua] *Area*, 33 (2), 117-118 or. Esteka: [https://www.researchgate.net/publication/249379224\\_Geographies\\_of\\_childhood\\_introduction](https://www.researchgate.net/publication/249379224_Geographies_of_childhood_introduction)

- Radio Vitoria (2019/02/08) Colectivos sociales exigen que el Casco Viejo sea un espacio seguro para el peatón. [audio] *eitb.eus*. Esteka: <https://www.eitb.eus/es/radio/radio-vitoria/programas/radio-vitoria-gaur-magazine/detalle/6186461/colectivos-exigen-hacer-casco-viejo-espacio-seguro-peaton-/>
- Reyes, C. (2011). La ciudad viva. Urbanismo emergente o “Tactical Urbanism” .
- Sánchez, F. (2002). Orçamento participativo: Teoria e Prática. Esteka: <http://www.rle.ucpel.tche.br/index.php/rsd/article/download/534/474>
- Sintomer, Y. (2005). Los presupuestos participativos en Europa: retos y desafíos. [Pdf dokumentua], *Revista del CLAD Reforma y Democracia*, (31 zb.), 1-17 or. Esteka: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=357533663003>
- Tonucci, F. (2013). *Haurren Hiria* [liburua], Txatxilipurdi Elkarteak.
- Tonucci, F. (2006). La ciudad de los niños ¿Por qué necesitamos de los niños para salvar la ciudades?. [Pdf dokumentua], *Equidadparalainfancia.org*. Esteka: <http://equidadparalainfancia.org/wp-content/uploads/2016/05/Francesco-Tonucci.pdf>
- Torres, C. y Álvarez, I. (2010): “Vitoria-Gasteiz”, [Pdf dokumentua]. Méndez Gutiérrez del Valle, R. (ed.): Estrategias de Innovación Industrial y Desarrollo Económico en las ciudades intermedias de España. Bilbao, Fundación BBVA, pp. 347-383. Esteka: [https://www.fbbva.es/wp-content/uploads/2017/05/dat/DE\\_2010\\_estrategias\\_innovacion.pdf](https://www.fbbva.es/wp-content/uploads/2017/05/dat/DE_2010_estrategias_innovacion.pdf)
- Youtube: Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (2016/05/02). *Proceso participativo. Mejorando Vitoria Gasteiz Hobetuz*. [Bideoa]. Esteka: <https://www.youtube.com/watch?v=AIDwOuT0jho>
- Youtube: Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (2017/10/06). *E08 Alde Zaharra: Haurren Auzoa*. [Bideoa]. Esteka: <https://www.youtube.com/watch?v=EDokn2SRQ7Q>
- Villapún, E. (2014). Vitoria-Gasteiz geografía urbana. [Word dokumentua]. Esteka: <https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=es&accionWe001=adjunto&nombre=2790.doc>